

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

Jendaurrean jartzea Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren 2023ko matrikula eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren 2023ko ordainagiriak ordaintzeko borondatezko epeak

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga ordaindu behar duten guztiei jakinarazten zaie zerga horri dagozkion zergadunen matrikula ondoren azaltzen diren tokietan egongo dela ikusgai, iragarki hau ALHAOn argitara ematen denetik aurrera:

- Iruña Okako udaletxean: udal kuotak.

Zergadunek egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkeztu ahal izango dizkiote zerga kudeatzen duen erakundeari edo, bestela, Arabako Lege eta Administrazio Erakundeari, 15 egun balioduneko epean, zergadunen matrikula jendaurrean jartzen den egunetik aurrera.

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren kobratze aldia:

2023ko urriaren 27tik 2023ko abenduaren 29ra arteko egun baliodunetan (biak barne) prest egongo dira, borondatezko epean ordaintzeko, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren 2023ko ordainagiriak, eta abenduaren 15ean kobratuko dira helbideratutako ordainagiriak.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga kobratzeko aldia:

2023ko urriaren 27tik 2023ko abenduaren 29ra arteko egun baliodunetan (biak barne) prest egongo dira, borondatezko epean ordaintzeko, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren 2023ko ordainagiriak, eta abenduaren 13an kobratuko dira helbideratutako ordainagiriak.

Iruña Oka, 2023ko uztailaren 17a

Alkatea

MIGUEL ÁNGEL MONTES SÁNCHEZ